

30. INFORMAZIO FITXA BILBO-ARTXANDA-BILBO

KOKALEKUA

Udalerrria

Bilbo

Udalerrriaren kod.

020

Eskualdea

Bilboaldea

Kartografia

Bizkaiko Foru Aldundia (1:5.000)

Orriak

06123
06131

FITXA TEKNIKOA

Homologatua

EZ

Gutxi gorabeherako denbora

Ordu 1 eta 45 minutu

Gehieneko desnibela (m)

200

Luzera (km)

5,7

Zailtasuna

Ertaina-Erraza

Trazatu mota

Lineala

Ibilbidearen hasiera

Salbeko zubia


Ibilbidearen amaiera

San Anton zubia

Interesa

Paisaia, kultura

Ibilbidearen profila



Mapa/Krokisa



Nola Iritsi

Itsasadarraren eskuineko ertzean dagoen ibilbidearen hasierara heltzeko, Salbeko zubia zeharkatu ahal da ezkerreko ertzetik, eta bertatik Errekalde etorbidera iritsi, edo bestela, Campo Volantin pasealekuko igogailuan edo eskaileretatik igo daiteke.

Deskribapena

Salbeko zubiko bidegorriaren amaieratik hasita, Artxandarako seinaleztapenari jarraituko diogu. Malda Erdiko bidezidorra hartuko dugu, Artxandarako igoera batzuk ezkerretara utzita, eta eskuinetara auzo batzuetatik Bilbora dauden sarbideak utziko ditugu. Halaber, udalak gaituriko picnic eremuetarako sarbideak ere seinaleztaturik daude. Artxandako gailurra igaro ondoren, Bilborako seinalei jarraituko diegu, eta horrela, Arabellara iritsiko gara. Ur-biltegi heldutakoan (Avril mendiko atsedenekura desbideratzeko aukera), Done Jakue bideko seinaleetatik joango gara; horrela, Begoñako basilikatik eta Mallonako galtzadetatik jaitsita, Alde Zaharra zeharkatu eta ibilbidea San Anton zubian nahiz elizan amaituko dugu. Abiapuntura itzuli nahi izanez gero, Erriberatik eta Campo Volantin pasealekutik jarraitu behar da.

IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Trazatua

Ibilbide hau zementuzko bide batetik eta legarrezko beste batetik doa. Azken zatia, Done Jakue bidearekin bat datorrena, hiri-lurzorutik doa.

Gurpil-aulkietarako gauza

Hiri-lurzorutik egiten den zati bat bakarrik

Norabideko seinaleztapena

Artxandaren maldan, ibilbidea norabideko seinaleekin (geziak eta balizak) seinaleztaturik dago eta horiek Arabellaraino eramango gaituzte. Bertatik aurrera, Done Jakue bideko seinaleetatik joan behar da: zurezko mugarriak hirikoa ez den zatian, eta baldosa urdinak nahiz horiak hiri-zatian.

Informazioko seinaleztapena

Done Jakue bideari buruzko informazio panela dago espaloian, Erribera eta Zabalbide kaleen arteko izkinan, San Anton elizaren aurrean.

ARGAZKIAK

Norabideko seinaleztapena: gezidun zutoina Artxandaren maldan



Norabideko seinaleztapena: baliza Artxandaren maldan



**Norabideko seinaleztapena: Done Jakue bideko baldosa
Alde Zaharrea**



Ibilbidea hasteko lekua



Ibilbidea funikularraren bidearen azpitik



Sustatzailea:

Lurralde Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundera

Kontsultorea:

NK gestión ambiental y cultural S.L.

Urtea:

2005

Ibilbidea Arbellara iristen



Alde Zaharreko sarrera Unamuno plazatik



Euskal Museoa



BALIABIDEAK

Bilbo Artxandatik ikusita

Ibilbide osoan, Bilboren eta inguruko mendien ikuspegi panoramiko zabalak daude.



Artxandako funikularra

1913tik dabil, baina 37an eta 38an geldi egon zen, Gerra Zibilean hegazkin baten tiroak jaso zituelako. Antzinako funikularra 1983ra arte ibili da, eta oraingoa urte horrextan eraiki zuten.



Begoñako basilika

Antzinako baseliza baten gainean altxaturiko tenplu berriaren eraikuntza lanak 1519an hasi eta 1620an amaitu ziren. Leku estrategikoa izan zen 1836ko eta 1873ko karlistadetan, eta gerra horietan suntsipen asko izan zituen. Behin betiko berreraikuntza 1900ean amaitu zen.

Mallonako galtzadak

1745ean eraiki zituzten, Artagan mendiaren aurrealdeko meseta txikiaren gainean. Miguel de Unamuno plazatik irten eta, lehenengo eta behin, Mallonako antzinako hilerriraino iristen dira (1830ean eraiki eta horren ate nagusia baino ez da gelditzen, hau da, arku neoklasikoa). Galtzadetatik jarraituz, Begoñako basilikaren lautadaraino iristen da.



Alde Zaharra

Hiribilduaren jatorrizko guneari Zazpi Kaleak esaten diote. Multzo Historiko-Artistiko izendatuta dago eta estilo arkitektoniko asko ikus daitezke bertan: eraikin errenazentistak, barrokoak, neoklasikoak eta modernistak. Santiago katedral gotikoa da Alde Zaharreko eraikinik altuena eta garrantzitsuenak. Halaber, aipagarria da San Anton eliza gotikoa, XIV. mendekoa, baita izen bereko zubia ere. Bi elementu horiek hiribilduaren armarrian jasota daude.



EKIPAMENDUAK

Atsedenekua

Artxandaren maldetan lau picnic eremu daude, eta Udalak erretegiekin, mahaiekin eta aulkiekin ekipatu ditu.



Haurren jolasak

Guggenheim museoaren ondoko zabaldegian, haurren jolasetarako zona zabala dago toboganekin, sare flotagarriekin, esfera bigunekin eta diseinu nahiz kolore bereziko elementuekin. Haurren zona horrek 4.000 metro koadroko azalera dauka eta kautxuzko aglomeratuarekin zolatuta dago, erabiltzaile gazteek minik ez hartzeko.

ZERBITZUAK

Ostatua

Bilbon ostatu eskaintza handia eta anitza dago, zerbitzu-hiria baita. Hotel nahiz ostatu asko, aterpetxe bat eta abar daude.

Tabernak eta jatetxeak

Bilboko eskaintza gastronomikoa handia eta anitza da, zerbitzu-hiria baita. Taberna-jatetxe asko dago eta horietan bertako gastronomiaz gozatzeko aukera daukagu; gainera, janari azkarra, janari exotikoa eta abar eskaintzen duten jatetxeak daude.

Euskal Museoa

Bilbon dagoen Euskal Herriko Museo Arkeologiko, Etnografiko eta Historikoaren funtsezko printzipioa, izan ere, bertako bildumak osatzen dituzten gauzen kontserbazioa eta zabalkundea da; horiek, izatez, Euskal Herriak historian zehar garaturiko bizimoduen lekukoak dira.

Guggenheim Bilbao Museoa

Amerikako Estatu Batuetako Frak O. Gehry arkitektoak diseinaturiko Guggenheim Bilbao Museoa 32.500 m²-ko lursailean kokaturik dago, Nerbioi itsasadarraren mailan, Abandoibarra etorbidean. Eraikina elkarri loturiko bolumen batzuek osatzen dute; batzuk ortogonalak dira eta kareharriz estalita daude, eta beste zenbait kurbatuak nahiz okerrak dira eta titaniozko azal metalikoarekin daude estalita. Mundu osoan ospetsua den museo honetan, arte modernoaren eta garaikidearen erakusketak egiten dira.

Turismo bulegoa

Abandoibarra 2 etorbidean dago, Guggenheim Museoaren ondoan.

Garraio publikoa

Bilbon garraio publikoaren eskaintza handia dago; izan ere, hiriko leku guztiak lotzen dituzten Bilbobus autobusak daude, eta gainera, metroa eta tranbia ere badaude. Bizkaibus konpainiak Bizkaiko hiriburua eta herri asko lotzen dituen linea ugari ditu.

OHARRAK

Ibilbidearen zati bat hiri-lurzorutik doanez, aipaturikoak ez ezik eskaintza eta zerbitzu asko ere badaude, adibidez, museoak, antzokiak, erakusketa-aretoak, etab.